

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Osasuneko profesionalen gripearen aurkako txertaketari buruz NOZak egindako azterketa batek estatu-mailako sari bat jaso du

Medikuntzako Estatuko Errege Akademiak emandako Profesor Rey Calero sariak txertoen gaineko ikerketa-azterketa onena aitortzen du

Jueves, 16 de enero de 2014

"Nafarroako lehen mailako arretako profesionaletan gripearen aurkako txertaketari lotutako jarrera, pertzepzio eta faktoreak, 2011-2012" izeneko lanak, Nafarroako Osasun Publikoko eta Lan Osasuneko Institutuak eta Navarrabiomedek elkarrekin egindakoa, "Profesor Rey Calero" estatu-mailako saria jaso du berriki.



Iván Martínez 'Profesor Rey Calero' saria jasotzen.

Medikuntzako Estatuko Errege Akademiak emandako sariak 2013 ikasturtean zehar gaztelaniaz argitaratutako txertoen buruz egindako ikerketa-lan onena aitortzen du. 1.200 euroko saria da eta banatze-ekitaldia iragan asteartean egin zen Madrilgo Medikuntzako Estatuko Errege Akademiaren egoitzan.

[Azterketa](#) iaz argitaratu zen Nafarroako Anales del Sistema Sanitario aldizkarian eta Bartzelonako Unibertsitateko Osasun Publikoko departamentuko ikerlarien laguntzarekin egin zen. Zehazki, bertan parte hartu zuten Ivan Martínez-Baz (egile nagusia), Jorge Díaz González, Marcela Guevara, Diana Toledo, Agurtzane Zabala, Ángela Domínguez eta Jesus Castilla-k. Lana Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak eta Carlos III Osasun Institutuak finantzatu zuten.

Lehen mailako arretako profesionalen % 56,2ri gripearen aurkako txertoa jartzen diote

Lanaren helburua zen, Nafarroako lehen mailako arretako osasuneko profesionaletan gripearen aurkako zer txertaketa-estaldura zegoen jakitea, eta profesionalak gripearen aurkako txertaketaren aurrean zer pertzepzio nahiz jarrerak dituzten identifikatzea; hori egin zen familia-medikuei, pediatrei eta erizaintzako langileei inkesta anonimo bat eginez. Azken denboraldietako txertaketaren gainean galdetzen zitzaizkien, profesionalak haren aurrean zuten jarrera eta pertzepzioen gainean, eta zenbait ezaugarri sozio-demografiko eta profesional ere jasotzen ziren.

Gogora ekarri behar da, gripearen aurkako urteko txertaketa osasuneko profesional guztiei gomendatzen zaiela beren osasuna babesteko, gaixotasunagatik laneko bajarik ez izateko osasun-zerbitzu eskaera handieneko aldietan zehar eta beren pazienteen artean erikortasun nahiz heriotza-tasa murrizteko. Nolanahi ere, Espainian, osasuneko profesionalen txerto-estaldura ez da % 50era heltzen.

Inkestari emandako erantzunen azterketak agerian utzi zuen Nafarroako profesional horien artean gripearen aurkako txertaketa-estaldura handi samarra dela, % 56,2, baina oraindik OMEak jarritako helburuaren azpitik (% 75). Horrek kontrastatzen du profesionalek txertaketarekiko duten ezagutza-maila eta jarrera onarekin; izan ere, % 59,6k aitortu zuen gripea gaixotasun larria izan daitekeela, eta % 86,4k, txertoa eraginkorra dela gripea ez izateko eta hark eragin ditzakeen konplikazioetarako.